

# HEZITZAILEAK XXI. MENDEKO GIZARTEAN

## **1.- HEZITZAILEAK ETA GIZARTEA: ELKARREKIKO IGURIKAPENAK**

### **1.1.- Gizarte errealitatea aztertzea (gizarteak eskolari eskatzen diona)**

Sistema demokratikoak gizarteak eskolari eskatzen diona bideratzeko bide batzuk ditu. Biderik landu, argi eta berariazkoenak legean xedatzen dira. Gauzak horrela, adostasuna eta derrigortasuna ezagutu ahal da. Eskaririk inplizitu eta berrienak legeak ezarritako partaidetza organoen, eskola kontseiluen eta ordezkartzeko gorengo organoen bidez azaltzen dira. Eskari horiek, hain formalak ez direnak, zailago detektatu eta interpretatzen dira.

#### **Gizartearen berariazko eskariak ondokoak dira:**

Espainiako Konstituzioan agertu bezala, hezkuntzaren helburua ondokoa da: “giza nortasuna osoz garatzea elkarbizitarako printzipio demokratikoen eta funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan”. (EK, 27.2.)

Horren osteko legerian, printzipio hori garatu da eta argi eta garbi azaldu dira hezkuntza sistemaren helburuak.

Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoan (8/1985, uztailaren 3koa) eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoan (1/1990, urriaren 3koa) hezkuntza jardueraren helburuak ere argi eta garbi azaltzen dira:

“a) Ikasleen nortasuna osoz garatzea.

“b) Funtsezko eskubideen eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarrituriko tolerantzia eta askatasuna egikaritzean trebatzea.

“c) Ikasleengan ohitura intelektualak, lan-teknika, zientzia, teknika, giza, historia eta estetika jakintzak garatzea.

“d) Lanbide gaitasunak egikaritzeko gaitzea.

“e) Espainiako hizkuntz eta kultur aniztasunaren errespetuan prestatzea.

“f) Gizarte eta kultur bizitzan parte hartzeko prestatzea.

“g) Bake, lankidetzeta eta herrien arteko elkartasunean trebatzea.”

(LODE, 2. art.; LOGSE, 1,1. art.)

Euskal Eskola Publikoko Legean (1/1993, otsailaren 19koa), euskal eskola publikoaren helburuak definitzean, hezkuntza helburu zehatzak aipatu ziren. Hona hemen:

“b) Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela.

“e) Kalitatezko irakaskuntza emango dela ziurtatzea, arreta berezia eskainiz irakatsi beharreko edukien balio pedagogikoari eta erabiliko diren metodo-bideen eraginkortasunari, gure ingurunean aurrerapausoak kontutan har ditzaten metodologia aktibo eta malguak sartuz, irakasleriari behar duen prestakuntza-berrikuntza eskainiz eta ikaslearentzako laguntza psikologikoa, eskola eta lanbide mailakoa ziurtatuz. Ikasleen jatorrizko ezberdintasunak berdintzeko, maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan jardutea.

f) Maila, etapa eta ziklo guztietan jardutea ikasleen jatorrizko desberdintasunak konpentsatzeko.

g) Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.

h) Euskal Herriko kide direnez ikasleek duten kultura-nortasuna mamitzen laguntzea, ikasleak beren geografiazko, gizarte-ekonomiazko eta kulturazko ingurunean errotzea bultzatuz.

i) Ikasleengan ohitura intelektualak, lan-teknikak eta jakintzak garatzea, jakintza-gai guztiak batera erabiltzeko moduan.

j) Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzaren eta elkartasun-ideiak sustatzeko heziketa.

k) Ematen den heziketaren hezkidetzaren ziurtatzea.

l) Irakaskuntzaren edukietan manipulazioak eta ideologiazko dotrinatzera bideratutako edukiak irakastea baztertzeara.”

(EEPL, 1.2. art.)

Gizarteak hezkuntza sistemari egindako eskarien inguruko formulazioak kontuan izanda, dirudienez, adostasuna dago eskola sistemari eskatutako bi helbururen inguruan: ikasleen nortasuna osorik heztea gizarte demokratikoan bizitzeko eta laneratzeko.

Lehenengo helburua kontuan izaki, beharrezkoa da pertsonak osorik garatzen laguntzea eskolan bertan, ondokoak garatu nahi badira besteak beste, autonomia, gizarteratzea, partaidetza kritikoa eta oinarritzko kultur elementuak ematea. Horretarako, hezkuntza sistema ondorengo printzipioetan oinarritzen da: gizarteratze, partaidetza eta elkarbizitza demokratikoa, desberdintasunak errespetatzea, bereizketari uko egitea eta desberdintasunak (gizartearen alorrekoak, sexuaren eremukoak edo kulturalak) konpentsatzea.

Bigarren helburua kontuan izaki, ikasleak baliabide mugatuak, langabezi estrukturala, teknologia aldakorak eta gero eta sofistikatuagoak dituen munduan bizitzeko prestatu behar da.

### **Bestelako gizarte eskariak, inplizituak eta sortzen ari direnak:**

Dena den, eskari inplizituak eta gizartearen aldaketen arabeko eskariak, legerian xedatu ez diren eskariak, interpretatzean, zalantzak sortzen dira.

Lehen aipatutako helburuei aurre egin behar dieten irakasleek anbiguotasuna eta kontraesanak jasan behar dituzte lanaren oinarri diren helburu, printzipio eta baloreei dagokienez. Printzipioen inguruko adostasunak errazagoak dira. Arazoak printzipioak zehaztean sortzen dira.

Gizarteak eskolari eskatzen dio ikasleak pertsona gisa garatzen eta banako eta taldeko balore etikoak berenganatzen laguntzeko. Elkarbizitza, tolerantzia eta bakearen inguruko kontzientzian hezteko eskatzen zaio eskolari. Baina, esaterako, bakerako hezkuntza baldintzaturik dago eragile anitzek parte hartzen baitute, alegia, irakasleek, familiek, gizarte inguruak, eta bakeari buruz askotariko iritziak dituztenek. Gizarte adostasuna teoriko eta erretoriko hutsa da. Gure gizarteak nolabaiteko gizarte lidergoa eskatzen dio eskolari, baina lidergo horri ekiteko, gutxieneko adostasunak behar ditugu.

Gizartean bizi den balore krisialdia, gizarte eta famili aldaketak, bizitzeko estilo berriak, eta gero eta ikasle gehiagok bizi duten egiturarik eza eta bereizketa direla eta, eskolan gizarteratzea, ikasketei eustea eta eskola jarduera gero eta zailagoa da. Hortaz, irakaslearen helburu zehatza ondokoa izango da: ikasleen interesekin eta igurikapenekin harremanetan jartzea, gazteen azpikulturak ezagutzea, eta gatazkei aurre egin eta jarrera eraikitzaile eta positiboetara bideratzea.

Eskolari zaintza eginkizuna esleitzen zaio, eta zeregin hori gero eta garrantzitsuagoa da hiri-gizarteetan. Eskolari eskolatzea zabaltzeko eta arriskuei aurrea hartzeko eskatzen zaio.

Ezagutza bidezko garapenean zentratutako eskolatik, pertsonaren garapen osoari arreta eskaintzen dion eskolara igaro behar da. Jakin-minaren, sormenaren, ohitura instrumentalen hezkuntzari jarrera eta balore etikoak gehitu behar zaizkio. Hori guztia curriculum esplizituaren zatia izan beharko da, beraz, egintza sistematiko eta progresiboaren xede izan.

Ikaslearen jarduera orientazioan zentratu behar dela esaten ari da. Irakasteaz gainera, ikasleak orientatu behar ditu, baliabideak eman eta erabakiak hartzen lagundu, ikasketa ibilbidea kontuan izanda eta lanbide geroari begira.

Beste eskari bat gizarte aldakorrean bizitzen irakastea da. Ez dago erreferentzia argi eta ziurrik; hori dela eta, segurtasunik ezan, egonkortasunik ezan, moldakortasunean eta balio-aniztasunean hezi behar da.

Hezkuntza beharizan bereziak dituzten ikasleak egon badaudela jabetzea eta inmigrazioa direla eta, eskolak jaramon egin behar dio aniztasunari eta interkulturalitatea lantzeari.

Eskolaz kanpoko iturrietatik ikasleek informazio ugari jasotzen dutenez, eskolaren zeregina informazioa jasotzeko gaitasunean zentratu behar da, hau da, lagundu behar du informazioa hautatu eta sistematizatzeko irizpideak sortzen. Geroenean, "ikasten ikasten" irakasteko eskatzen zaio eskolari.

Eskolari ere zenbait ikasketen inguruko eskakizunak egiten zaizkio. Izan ere, hiru ikasketa mota aipatzen ditugu: atzerriko hizkuntzak, teknologia berriak, eta, gizarte diglosikoetan, hizkuntz normalizazioa.

Gero eta gehiago eskatzen da ikasketek gaitasunaren benetako garapena ekartzeko. Hortaz, gaur egun, hizkuntzak erabiltzeko batez ere ikasten dira; teknologien inguruko jakintzak baloratzen dira une zehatz batzuetan aplika badaitezke; gizarte eta zientzia informazioek lagundu behar dute errealitatea ulertzen eta errealitate beraren aurreko jarrerak hartzen.

Lehen aipatua gorabehera, irakasleek arazo eta egoera berriei egin behar diete aurre, lanaren helburuak desberdinak dira, igurikapenak zabaltzen dira, jarduteko modua desberdina da, eta, geroenean, gizarteak ez die eskatzen orain arte eskatzen ziena.

Baina gizarteak ezin du eskolaren gainean zama guztia ipini, eta gero kasurik egin ez. Aldaketei eta eskari berriei dagokienez, eskolaren oinarriko erantzukizuna testuinguru berri horretara egokitutako eskola kultura definitzea eta kultura hori irakasteko behar den lanbide esku-hartzea zehaztea da. Bestelako eragile batzuek euren erantzukizuna hartu beharko dute beren gain, adibidez, erakundeak (museoak, liburutegiak, orkestrak, antzerkiak...) eta udalak, gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, lan zerbitzuak, elkarteak, sindikatuak, enpresak, komunikabideak eta abar.

## **1.2 eta 1.3.– Eskola errealitatearen azterketa eta errealitate bion arteko elkarrekintza**

Aspalditik, euskal gizartearen aburuz, eskola hezkuntza pertsona eta gizarte aurrerabiderako funts baliozko eta beharrezkoa da. Hortaz, bizitasun handiko ekimenak garatu dira gure gizartean.

70eko hamarkadaren erdialdean lortu zen eskola postuen eskaria asetzea, nahiz eta garai hartan eskaria inoizko handiena izan zen. Une horretatik, irakaskuntzaren kalitatea hobetzera bideratu da ahalegina.

Irakaskuntza emateko baldintzak hobetzera bideratu ziren ahaleginak hasiera batean: gelako ikasle kopurua gutxitzea, taldeko irakasle kopurua gehitzea, eskoletako eraikinak hobetzeko gastuak gehitzea, didaktika ekipamenduak sortzeko gastuak gehitzea, ikastetxeen gastu gaitasuna handitzea...

Bestelako neurriak irakasleen lanarekin daude lotuta: irakasleen arteko koordinazioa hobetzea, jarduneko irakasleen prestakuntza handitu eta hezkuntza berrikuntza gehitzea, eta ikastetxeetan eta ikastetxez kanpo irakasleen lana errazteko laguntza eta aholkularitza zerbitzuak ezartzea.

Beste neurri batzuk ezarri dira ikasleen gaitasuna handitzeko, euren hezkuntza beharrian edozein izanda ere. Eskola sistemaren kalitatearen adierazleetako bat hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasleei behar bezalako arreta eskaintzeko gaitasuna da.

Eskari berriak ikasketekin eta didaktika prozesuekin daude lotuta. Denon ustez, 70eko hamarkadaren erdialdean hasitako gizarte eta ekonomi krisia gainditu eta gero, eta produkzio sektoreen birmoldaketak aurrera egin ahala, gizaldi berrien prestakuntza gero eta hobe izan behar da, giza kapitala hobe izan dadin eta prestakuntza egokia izan dadin. Lanbide Heziketa gizartearen balorazio ona ari da jasotzen, eta Euskal Herrian mota horretako irakaskuntza ospea ari da lortzen, azken urteotan galdu baitzen. Nahitaezko irakaskuntzan, informazio eta komunikazioaren teknologiak eskuratzeko baliabideak ari dira jartzen.

Europako eremuan sartzea eta etengabeko globalizazioa ekonomi, gizarte eta kultur jazokizunak dira, eta atzerriko hizkuntzak ikastearen hobekuntza ekarri dute. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe askotan atzerriko hizkuntza txiki-txikietatik irakasten ari da, eta esperientzia hori orokortzeko asmoa egon badago. Batxilergoko ikastetxeetan eta prestakuntza zikloetan, atzerriko hizkuntza irakaste hizkuntza legez ari da erabiltzen. Horrez gainera, eskari horiek eragina dute eskola multikulturalaren -hau da, kultura anitzen elkargune den gizarte zabal eta askotarikoan bizitzeko prestatzen duen eskola- alderdiak zehazteko orduan.

Ikasleen gizabidezko prestakuntza moralari dagokionez, beste gizarte erakunde batzuen -familia eta erlijio erakundeak, esaterako- rola aldatu eta ahuldu da. Askotan, eskolari eskatzen zaio prozesu osoa garatzeko, lehenengo gizarteratze prozesutik gizabidezko kontzientzia morala garatu arte. Eskola eremua zeregin hori bereganatzen saiatzen ari da, baina askotan, ataza handiegia da, beste erakunde batzuek laguntzarik ematen ez dutelako.

Eskolari eskatzen zaio kohesioa sortzen laguntzeko eta elkarbizitzan hezteko, edozein hezkuntza egintzaren oinarrizko helburu baitira eta euskal gizartean berebiziko garrantzia baitute. Helburu hori lortzeko, eskolan, zenbait baloretan oinarritutako elkarbizitza bultzatu behar da, eta baloreok ondokoak dira: bereizketarik gabeko berdintasuna, askatasuna, zuzentasuna, partaidetza eta gatazkak konpontzeko elkarriketa demokratikoa; baina halako baloreak ez dira beste erakunde batzuetan bultzatzen direnak. Horrezaz gainera, zenbait

ikastetxetan, programa interesgarri batzuk ari dira bultzatzen, Elkarbizitzarako Hezkuntza Programari esker.

Eskolak kohesioa eta elkarbizitza bultzatzeko ondokoa erabiltzen du: diskurtso eta praktika koherenteak, zeintzuek integrazioan oinarritutako eskola egiturei eusten baitiete, hau da, ez dira ikasleen hautapenean edo sailkapenean oinarritzen. Euskal hezkuntza sistema oso dibertsifikatua da: bi eskola sare eta hiru hizkuntza eredu, eta, jakina, ikastetxe bakoitzean modu desberdinerara gauzatzen dira beroriek. Ezaugarri horiek orokorrean positiboak dira, familien hautatzeko aukerak zabalagoak baitira. Baina ezin da ukatu hezkuntza sistema hain dibertsifikatua mugatua dela gizarte kohesioa bultzatzeko orduan, nahiz eta hezkuntzaren oinarritzko xedeetako bat izan.

Era berean, kidego organoetako partaidetza eta guraso elkarten bidezkoa ikastetxeak hobetzeko faktorea da.

Kalitatea hobetzeko, hezkuntza sistemak hobekuntza hori orientatu eta aldezteko tresnak eduki behar ditu. Tresna horien artean, ebaluazioa azpimarratu behar da, bai ikastetxeek eurek egin beharrekoa, eta bai Hezkuntza Administrazioak hutsuneak detektatu eta kasuan kasuko hobekuntza alorrak bultzatzeko egin beharreko ebaluazioak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ebaluazio organoa sortu du, Hezkuntza Ikuskaritzaren lana osatzeko. Organo hori ISEI-IVEI (Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) da.

Kalitatea Euskal Herriko produkzio sektoreen helburu nagusietako bat da gaur egun, 80ko hamarkadako industri birmoldaketa eta berregituraketa handiari aurre egin ahal izateko. Interes hori ikusita, Lanbide Heziketarako Euskal Egitasmoak aparteko garrantzia eman dio kalitatea era eragingarri nahikoan bermatzen duen estrategiari. Helburu hori bi bideren bitartez garatzen dute: batetik, prestakuntza ziklo guztietan kalitateari buruzko modulua sartzen da; bestetik, ikastetxeek eurek enpresa munduko irizpideen barruko kalitate sistemak aplikatzen dituzte.

Gizartearen eskakizun guztien arabera, hezkuntza sistemak egintza garatu behar du eskolari eskatu ohi zaiona baino alor zabal, askotariko eta konplexuagoan.

## **2.- ATAZA ETA FUNTZIOAK: TUTORE-LANA**

### **2.1.- Tutoretza, hezkuntza sistemaren gakoa**

Etengabeko kalitate eta hobekuntza irizpideekin lotuta, gure erkidegoan gauzatu diren garapen mugimenduak eta XX. mendeko hezkuntza erreformak –Estatuan, LOGSE- kontuan izanik, hezkuntza orientazioa berrikuntza eta kalitaterako faktore garrantzitsua eta erreforma bera sendotzeko funtsezko osagaia da. Hortaz, LOGSEko 55. artikuluan xedatu bezala,

hezkuntza eta lanbide orientazioa irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko faktoreetako bat da, eta lehentasuna eman behar zaio.

Era berean, LOGSEko 60. artikuluko lehenengo puntuan agertu bezala, tutoretza eta orientazioa hezkuntza funtzioaren zatiak dira. Ikastetxeek funtzio horiek koordinatu behar dituzte, eta talde-gela bakoitzari irakasle tutorea esleitzen zaio. Bigarren puntuan ezarri legez, berriz, Hezkuntza Administrazioak ikasleen akademi, psikopedagogi eta lanbide orientazioa bermatu behar du, baita behar bezala prestatutako irakasleek garatuko dituztela orientazio jarduerak ere. Hirugarren xedapen gehigarriko 3.e) puntuan adierazi bezala, hezkuntza eta psikopedagogi orientazioko zerbitzuak sortuko dira ikastetxeei laguntzeko

Euskal Autonomia Erkidegoan, zenbait lege aipamen aurki ditzakegu:

Era bertsuan, Euskal Eskola Publikoko 1/1993 Legean jasotako helburuen artean, ikasleentzako psikologi, eskola eta lanbide orientazioa ematea dugu. DBHren kasuan, urtarrilaren 23ko 25/1996 Dekretua dugu, zeinaren bidez hezkuntza maila hori ezarri baitzen EAEn; dekretu horren 16. zenbakian xedatu legez, orientazioa eta tutoretza egikaritzeko irizpideak DBHren Curriculum Proiektuaren zatiak izan behar dira. Izan ere, dekretu horren 24.2. artikuluan agertu moduan, tutoreak pertsona, akademi eta lanbide orientazioa eskaini behar die ikasleei, eta etaparen amaieran Orientazio Kontseilua gauzatu beharko da. Era bertsuan, ikastetxeetako Orientazio Plana (Tutore-lanako Plana barne) Ikastetxeko Urteko Planaren barruan, klaustroak onetsitako Hezkuntza Jardueren Planaren zatia izan behar da.

Testuinguru horretan, Tutore-lanak balio du ikaste prozesua eta giza garapena egituratu eta integratzeko. Hortaz, tutore-lana loturik dago XXI. mendeko erronka berriei, hau da, informazioaren gizartearen gizarte eta ekonomi ordena berriari; beraz, gaur egun inoiz baino hobeto ikus daiteke hezkuntza sistemak funtzio bikoitza betetzen duela: jakitearena eta izatearena. *Jakitearen* inguruan, ataza nagusia "ikasten ikastea" da; gakoa ez da jakintzak biltzea, baizik eta jakintza non eta nola aurkitu eta informazio eta jakintza iturriak hautatu, interpretatu eta erabiltzea. Eta ataza hori tutore-lanaren ardura zen lehenagotik. *Izateari* dagokionez, tutore-lanaren gakoa da. Asmoa ikasle bakoitzeko pertsona garapena ahalik eta gehien aldezte da, hots, gizarte demokratiko eta konplexuaren eskakizunei aurre egitea, gizarte eta kultur desberdintasunak konpentsatzea, gizarteratzeko prestatzea...

Tutoretzaren garrantzia handitu da familian egitura aldaketak gertatu direlako, gizartean balore eta kultura desberdinak bizi direlako, eta ikaslearentzat aldaketa handiko garaia delako. Tutoreak bakarrik ezin ditu izakiaren garapena eta oinarrizko gaitasunak bultzatu, kontuan hartu behar baita gelatik pasa diren irakasleen eragina. Hortaz, garrantzitsua da ikasle taldea irizpideak batu eta denon konpromisoei aurre egiteko gai den hezkuntza taldea izatea.

## **2.2.- Tutoretza lana: esku-hartzea eta erantzukizunak**

Nahiz eta tutore-lana irakasle guztien hezkuntza jarduera izan, irakasle koordinatzailea izendatu behar da ikasle taldearekin harreman onak izan ditzan. Tutoreak hezkuntza taldea motibatu, dinamizatu, bultzatu eta egituratu beharko du, baita familiekiko harremanak estutu ere.

Tutoretzaren arduraduna 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrean (LGE) agertu zen lehendabizikoz; geroago eta zehatzago, 1983ko Hezkuntza jasotzeko Eskubidea Arautzeko Legean (LODE) eta 1990eko Hezkuntza Sistema Antolatzeko Lege Orokorrean (LOGSE) eta berori garatzeko errege dekretuetan jaso zen arduradun horren figura; hortaz, tutorearen figura ez da berria, baina oraindik ez da irakaskuntza ertaineko ikastetxe guztietan ezarri.

Euskal Autonomia Erkidegoan, aurrerapen garrantzitsuak gauzatu dira azken urteotan:

- \* ikasleen ordutegian tutoretza betetzeko denbora zehatza ezarri da (ordubete astean DBHko lehenengo zikloan, eta ordubete hamabostean behin, berriz, bigarren zikloan); taldeko tutore-lanako denbora hori ikastordua dira irakasleentzat;

- \* Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan, orientatzaile bat gutxienez ezarri da, tutoreak koordinatu, eta eurei laguntza eta aholkuak emateko;

- \* orientazio sailak sortzen dira, baldin eta ataza horrekin (hezkuntza bereziko irakasleak, curriculum dibertsifikazioa eta abar) lotutako hiru pertsona gutxienez badago;

- \* ikastetxe publiko guztiek euren tutore-lanako plana landu behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan, tutoreari dagokion arautegia Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Antolamenduari buruzko ebazpenean jasotzen da. Izan ere, ikasturte honen (2001-2002) antolamendurako, aurtengo ebazpenean jaso diren alderdiak ondorengoak dira besteak beste:

- a) Tutore-lanako Plana ikastetxe guztietan landu beharko da, hezkuntza orientazio eta laguntzako plan zabalago baten barruan. Ikastetxe askotan martxan dago dagoeneko, baina zenbait formalizazio alderdi (Klaustroaren edo Eskola Kontseiluaren onespena) hobetu beharko lirake, orientatzailea lan osoaz ardura ez dadin. Dena den, martxan jarri diren planak ondo edo oso ondo ari direla garatzen uste dugu.

- b) Tutoreak izendatzeko irizpideak. Ziklo osoan zehar tutore berbera izatea garrantzitsua da, eta komenigarria da tutorea ikasgai komunak ematen dituzten ikasleetako bat izatea. Era berean, ikasle taldeko tutoretza esleiturik ez duten irakasleek beharizan bereziak dituzten ikasleen taldeen tutoretza lanak gauzatzen lagundu behar dute. Neurri horien aplikazioa baloratzean, programatutakoaren eta egindakoaren arteko alde galanta dagoela ikus dezakegu. Izan ere, lehen aipatutako atzetako azkena oso gutxitan gauzatzen da. Taldeetako



tutoreen iraunkortasunari dagokionez, esan behar dugu DBHko bigarren zikloko egituraren ondoriozko zenbait zailtasun sortzen direla, alegia: aukerako eta hautazko ikasgaien ordutegiak gelako taldearen kontzeptua bera galtzea dakar.

c) Tutoreen eginkizunak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle-talde bakoitzeko irakasle tutorea gutxienez ziklo oso batean zehar izango da tutore. Tutorearen eginkizunak ondokoak izango dira:

- Bere ikasle-taldeari egokitzen zaizkion irakasleak koordinatzea. Tutoreek ikasturtean zehar, ebaluazio-bileretatik kanpo, hiru bilera bederen eduki behar dituzte bere taldeko irakasleekin.
- Irakasleak orientatzea, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionaletan; beharrezkoa zaionean, ikastetxeko eta inguruetako orientazio-zerbitzuen laguntza jasoz.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa amaituta, eta irakasle-taldearen informazioa jaso ondoren, orientazio-aholkuak idatzi beharko ditu.
- Irakasleei eta hauen gurasoei eskolako jarduerari buruzko informazioa ematea.
- Ebaluazio-bilerak koordinatzea, eta bere tutoretza-lanari dagozkion ikasleen dokumentazioa betetzea.
- Eskolara ez joatea kontrolatzea.
- Ikastetxeak familiekiko informazio-bilerak antolatzea. Orobat, irakasleak, tutoreak eta tutoreak ez direnak ere hara azaltzeko ahaleginak egingo ditu ikastetxeak.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez, funtzio horiek guztiak oso garrantzitsuak dira, eta ondo ari dira betetzen. Hala eta guztiz ere, zenbait hutsune sumatu ditugu:

\* Irakasleek irakaskuntzaz kanpoko ordu gutxi dute betekizun horiei guztiei aurre egiteko. Egin-eginean ere, ez dago ordu zehatzik zehaztuta maila edo zikloko tutoreen taldeek orientatzailearekin bilerak egiteko, ezta banako tutoretza jarduerak betetzeko ere. Halaber, gure ustetan, hezkuntza ekipoen (gela berean ikasgaien bat ematen duten irakasleen taldea, tutoreak koordinaturik) urteko bilera kopurua ez da nahikoa.

\* Era bertsuan, gure iritzirako, ikasleen ordutegian, gelako tutoretzarako orduak gutxi dira; DBHko bigarren zikloan ordubete baino ez baita hamabostaldian.

\* Tutoreak gurasoekin bilerak egiteko ordubete finkoa denez astean, zaila da gurasoentzat ikastetxera bertaratzea. Akatsik handienak ikasle bakoitzeko banako azterketa eta familiekiko komunikazioa dira.

### **2.3.- Tutore-lana aintzakotzat hartzea**

Tutoretza indartzeko neurriek ondokoak hartu behar dituzte kontuan: irakasleen inplikazio eta prestakuntza gauzatzeko baliabideak, denbora eta esparruen baldintza egokiak, eta giza, materia eta antolakuntza baliabideak (batzuk aurreko puntuan azaldu dira).

Lehen aipatutako eginkizun eta atazak bete ahal izateko, tutoreek oinarriko prestakuntza berezia behar dute: batetik, eguneroko praktika sendotzeko funts teorikoak (nerabeen psikologia ebolutiboa, talde dinamika, etaparen curriculum plangintza eta abar); bestetik, geletan gauza daitezkeen Tutore-lanako programei buruzko jakintza nahikoa (etapa/ikasturtean hartzea, ikasle bakoitza gelako taldean ezagutu eta bertan parte hartzea, akademi eta lanbide orientazioa eta abar).

Prestakuntza beharizan horiek betetzeko, EAEn, bi bide nagusi jarri dira martxan: batetik, gai horiek aztertzen dituzten prestakuntza proiektuak garatzea ikastetxean; eta bestetik, doako ikastaroak antolatzea (gehienak eskola-orduz kanpokoak dira, eta irakasle bakoitzak du aukera bertan parte hartzeko). Eskola Kontseiluaren irudikoz, ikastetxean bertan emandako prestakuntza, klustroaren inplikazioa ekartzeaz gainera praktikoagoa da.

Tutoretza taldeko jarduerak prestatu eta garatzeko baliabide materialak nahikoak dira – euskarazko materialari dagokionez izan ezik- eta kalitate onekoak. Baina ez dago astirik tutoreek materiala ikasleen kasuan kasuko beharrezanez egokitzeko.

Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek eta, bereziki, ikasketa buruek irakasleen inplikazioa indartu behar dute tutore-lanan, baita arautegia behar bezala betetzen dela bermatu ere.

## **3.- HEZITZAILEEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA ETA IRAUNKORRA**

### **3.0.- Nolako profesionalak prestatu behar dira?**

Irakasleak profesional gisa eskolan eta gelan duen funtzioaz eztabaidatzen den guztietan, eskola edo irakaskuntzari buruzko ikuspegiarekin lotutako irakaslearen irudia datorkigu burura. Eskolan, eskakizun zahar eta berriak nahasten dira, eta eskakizun horiek, batzuetan, interes eta balore kontraesankorrak dakartzate, eta lanbide jarduera berria eskatzen dute. Dena dela, denon ustetan, irakaskuntza hobetzeko, ezinbestekoa da irakasleak trebeak izatea, hau da, behar bezala hautatu behar dira irakasleok eta lanbide motibazio egokia eskaini behar zaie.

Irakaslearen jardueraren lehentasunezko eremua curriculumaren ardura da. Lanbide pentsamoldea bultzatzeko faktore erabakigarriak ondokoak dira: curriculum ulertzeko era, berori gauzatzeko tresnak, horretarako baliabideak, eta ikasleei esleitutako rola. Curriculum zabala bada, irakaslearen ardura handiagoa da, zer eta nola irakatsi erabakitzeko eta irakaskuntza, ikaste eta ebaluazio denborak kudeatzeko orduan.

Ikasleak euren hezkuntzaren protagonistak dira. Irakasleek beste rol bat hartu behar dute euren gain, hau da, ikasleen ikaste prozesua erraztu behar dute. Horren ondorioz, ataza berriak sortzen dira eta lana hezkuntza taldearen barruan koordinatu behar da.

Hezkuntza jarduera profesionala zehazten duten ezaugarriak hauexek dira:

\* Ikasleentzat baliozkoak diren curriculum proiektuak landu eta betearazteko erabakia hartzeko autonomia, gainerako lankideen lana kontuan izaki.

\* Ikasle desberdinen eskakizunei aurre egiteko gaitasun handiagoa, hezkuntza zabaleko proiektuaren barruan, banako beharrianak hobeto bete ahal izateko. Hau da, hezkuntza prozesuak ikasleen beharrianak eta ikaste erritmoak diagnostikatu behar ditu, baita lehen proposatutako helburuetara zuzendu, ebaluatu eta orientatu ere.

\* Praktikaz hausnartzeko eta helburu berrien zerbitzupeko ebaluazio kultura berria garatzeko gaitasuna.

\* Gizarte inguruneari buruzko ezagutza eta kultur prestakuntza zabala, zertarako eta jakintzak antolatzeke eta ikasketen inguruko ikuspegi funtzionalagoa izateko.

\* Ikasleek eskola jardueretan parte hartzeko ahalegina.

### **3.1.- Hasierako prestakuntza berezia**

Hezkuntza erreformaren prozesua sakona izan da, eta eragina izan du hezkuntza sistemaren egituran eta etapetako curriculumetan. Irakasleek lanbide perfil berria behar dute, eta perfil hori, eskola urteen ondorioz, buruan dugun ideiarekin kontrakoa da neurri handi batean. Unibertsitateak berak prestatu behar ditu irakasle berriak, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako.

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei dagokienez, arestiko azterketen arabera, irakasle eskolek ikasketa egitasmoak eguneratu behar dituzte lanbide perfil berriari egokitzeko. Hasierako prestakuntza bidea egon badago, baina hobeto erantzun beharko lekieke ikastetxeetako eskari berriei (tutoretza, hizkuntzak, haur hezkuntza, hezkuntza beharrian bereziak, musika hezkuntza, gorputz-hezkuntza), sortzen ari diren beste eskari batzuei (teknologia berriak, informazioaren gizartea eta abar) eta ikastetxeetako antolakuntzaren ondoriozko eskariei (administrazioa, zuzendaritza, kudeaketa eta barneko koordinazioa).

Bigarren Hezkuntzarako, ez dago lanbide perfil berriari egokitutako prestakuntza berezirik. Zientzia ikasgaien edukien ikasteaz aparte, etapa horretan, hasierako pedagogi prestakuntzari ez zaio behar bezalako arreta eskaintzen. Pedagogi Gaitasunaren Ziurtagiria (CAP) ez da prestakuntza nahikoa. Unibertsitateak lehenengo ikasturteetan eskaini beharko luke hezkuntzarako lanbide aukera; baita horren aldeko aukera egin dutenen ikasketa planak egokitu ere, curriculumak dibertsifikatuz eta hezkuntza praktikak eskainiz.

Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, ondokoak zaindu beharko dira bereziki: praktikak antolatzea, irakasle tutoreen hautapena eta prestakuntza, eta irakaskuntzan hasi direnen laguntza –lehenengo urtean behintzat-.

### **3.2.- Irakasleen etengabeko prestakuntza, XXI. menderako**

Eskakizun berriei egokiro erantzuteko, ondokoak sustatu behar ditu hezkuntza sistemak profesionalen artean: hasierako prestakuntza osatu eta eguneratzeko etengabeko prestakuntza; hezkuntza praktikaren ebaluazioa; berrikuntzarako gaitasuna; eta mailaz igotzeko aukera (hezkuntza karreran).

Erantzunbeharrei aurre egiteko gaitasuna ez da jakintza teoriko hutsa. Teoria eta praktika kontrastatu behar dira. Jarduneko profesionalaren prestakuntzak hurrengoak bete behar ditu:

\* Irakatsi behar dituzten curriculum edukien eguneratze zientifikoa; halako moldez, diziplinaren ekarpen berriak ezagutzeaz gainera, diziplina hori ikasleei irakasteko ikuspegi berriez jakin behar dute.

\* Didaktika jakintza gaurkotzea; teknologiak behar bezala erabili ohi dira, irakatsi eta ikastea errazteko.

\* Curriculumak kudeatzean, taldeka lan egiten ikasi behar da.

\* Tutoretza lanerako prestakuntza, curriculumean integratutako orientazioa eta aniztasuna behar bezala tratatzea.

Zelan gauzatu behar da etengabeko prestakuntza?

Jarduneko irakasleen prestakuntza talde zehatz batean duen zereginarekin eta eskola testuinguru zehatz batekin egon behar da lotuta. Hori dela eta, ikastetxeko proiektuaren prestakuntza programek rol garrantzitsua bete behar dute.

Irakaskuntzaren ebaluazioa lanbide garapenaren oinarritzko tresna da. Irakasleak bere burua aztertzeke duen gaitasunari esker, bere irakaskuntza ekintzaren indarrak eta ahuleziak ezagut ditzake, baita ikasleen hezkuntza beharrezkoak eta ikasleen erantzunaren maila ere.

Ebaluazioa, funtsean, taldeka egin behar da; lehentasuna Ikasketa Proiektua da, eta helburuak, berriz, ondokoak dira: proiektua bera zalantzan jartzea, hezkuntza ekintza egokitzen duten adostasun berriak bilatzea, eta proiektu horren martxan jartzea eta ebaluazioa aztertzea.

Irakaskuntza praktikaren ebaluazioa autoebaluazio prozesua da, eta ezin da kanpoko ebaluazioarekin ordeztu, nahiz eta horren laguntza jaso. Irakaskuntza praktikaren arazoak jatorria jakitea eta konponbideak topatzeko ahalmena bakarrik dira nahikoak lanbide praktika aldarazteko. Ebaluatzaile adituak laguntza eman dezake autoebaluazioa garatzen, baina ezingo du berori ordeztu.

Berrikuntzarako gaitasunari esker, lanbide gaitasuna jarduketa sortzailearen bidez garatzen da. Horretarako, ondokoak bizkortu behar dira: benetako egoerak interpretatzeko gaitasuna; egoeron kausa eta baldintzak aztertzeke gaitasuna; konponbide alternatiboak proposatzeko gaitasuna; helburuen arabera, bideragarritasuna eta koherentzia kontuan izanda, eta une zehatza aintzat izaki, konponbiderik egokiena aukeratzeko gaitasuna; konponbide hori abian jartzeko gaitasuna; lortutako emaitzak ebaluatzeko gaitasuna.

Lanbidean, mailaz igotzeko, irakaslearen aukerak zabaltzeko bideak ezarri behar dira. Horretarako, irakaskuntza-lanean bertan, ahalmen berriak eskaini behar dira (igoera horizontala) edo profesional esperientziadunak eskatzen dituzten lanpostuetarako sarrera erraztu behar da (igoera bertikala).

Irakasleen garapen profesionala aintzat hartu eta estimulatzeko orduan, lanbidean mailaz igotzearen definizioa eta aplikazioa konpondu gabeko arazoa da. Zeregin horiei al bait arinen eutsi behar zaie gaur egun gizarteak eskatzen duen profesionaltasun ereduaren arabera.

### **3.3.- Azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu diren prestakuntza jarduerak.**

EAEEn, jarduneko irakasleen prestakuntza IRAPREST planaren bidez antolatu da, eta 1989-90 ikasturtetik 1995-96 ikasturtera arte egon da indarrean. Antolatu ere, GARATU planaren bidez garatu da azken ikasturtetik.

1998ko uztailaren 28an, lan baldintzen inguruko hitzarmenean (EHAA, 1998/09/08) jaso bezala, prestakuntza modalitate bakoitzari gutxi gorabeherako portzentajea esleitzen zitzaion:

- ✓ Prestakuntza, lantokietan ..... %55
- ✓ Espezializazio, prestakuntza eta eguneratze ikastaroak ..... %25
- ✓ Autoprestakuntzako jarduerak ..... %15
- ✓ Bestelako jarduerak ..... %5

#### **Prestakuntza lantokietan.**

Lantokiek eskumena dute irakasleek eurek diseinatutako prestakuntza proiektuak bultzatzeko. 1994-95 ikasturtea izan zen azkenekoz gauzatu zen Prestakuntza Plan Trinkoa (PPT-PIF) Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta ikastetxe askok (604 ikastetxe) parte hartu zuten. Aldi berean, Bigarren Hezkuntzan, LOGSE batxilergoak ezartzeari buruzko mintegi eta lan taldeak antolatu ziren, baita DBHko irakasleentzako prestakuntza berezia (“DBH moduluak”) eskaini ere. Horrez gainera, ikasturte horretan, Prestakuntza Zehatzeko 25 proiektu onetsi ziren, prestakuntzako beharrian zehatzak dituzten irakasle taldeentzat.

1995-96 ikasturtean, prestakuntza zehatza orokortu zen. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, curriculum edo hezkuntza proiektua lantzeari ekin zitzaion PPTren esperientzia kontuan izanik. Bigarren Hezkuntzakoetan, berriz, alor zehatzak landu ziren. 1996-97 ikasturtean, bi formula landu ziren: “*ikastetxeko*” prestakuntza –klaustrok parte hartzen du-, eta prestakuntza “*ikastetxean*” -talde zehatz baten konpromisoa: alorra, zikloa, maila...-. Ondoko ikasturteak formula biok batu ziren. 1998-99 ikasturtean, azkenik, ikastetxe bakoitzak irakasleak prestatzeko plan globala ezarri zuen, banan-banan onetsi behar ziren prestakuntza jarduerak bereiztuz. Horrekin batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diru gehiago eman zuen prestakuntza modalitate horrentzat, eta lehentasuna eman zion formula tradizionalen gainetik – kanpoko ikastaroak-; eta arrakasta handia izan zuenez, hurrengo urteetan orokortu egin zen.

#### *Espezializazio, prestakuntza eta eguneratze ikastaroak*

Prestakuntza modalitate akademikoagoa da. Gehienetan, kanpoko agenteek (unibertsitateak, bestelako zentro ofizialak, elkargo profesionalak, enpresak...) antolatu eta ematen dute prestakuntza hori. Ikastaroen tipologia luzapenarekin lotuta izaten da.

Ikastaro batzuk espezializazioa lortzekoak dira. 250 ordu baino askoz gehiago ematen dira ikastaroka. Ikastaroon bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak azken urteotan eskaria handiagoa izan duten espezialitateak –irakaskuntza eta gai jakin batzuk ezarri eta zabaldu direlako- eskaini dizkie irakasleei. Espezializazio eta graduondoko ikastaro luzeek garrantzi handia izan dute Haur eta Lehen Hezkuntzan, ondoko espezialitateetan: Haur Hezkuntza, Gorputz Hezkuntza, Musika, Ingelesa, Aholkularitza, Pedagogia Terapeutikoa, Entzumena eta Lengoaia eta HHI. Ondorengo ikastaro luzeak ere antolatu egin dira: hizkuntzen eguneratzea, orientazioko graduondoko ikastaroak, zientziak eta filologia.

Ikastaro motzen bidez (hamar ikastarotik zortzik ez dute 50 ordu baino gehiago), irakasleen jakintza didaktiko eta zientifikoa eguneratu nahi da irakaste-ikaste prozesuan.

Azken urteotan, euskara ikastaroen eskaria handitu da, eta guztizkoaren laurdena baino gehiago izan dira.

#### *Banako prestakuntza: ikasketetarako baimenak eta banako ekonomi laguntzak.*

Ikasketetarako baimen ordainduen bidez, banako prestakuntza sustatu nahi da zenbait gaitan, alegia: “*lanbide jardunari lotutako gaiak, baldin eta balio badute irakaskuntza eta hezkuntza-sistema osoa hobetzeko*” (deialdiaren testua). Deialdiaren modalitateen artean, lanpostuarekin lotutako ikerketa proiektuari buruzkoak curriculum materialen produkzioa dakar. Gainerakoetan, kasuan kasuko titulazioa lortzea da helburua.

Beste alde batetik, urtero, *banako diru laguntzak* eskaintzen dira prestakuntza jarduerak gauzatzeko, eta laguntzok EAEko unibertsitateetan eginiko ikasketen %80 betetzen dute, baldin eta ikastarook balio badute akademi titulazioa edo alorreko gaikuntza ematen badute. Bestelako prestakuntza jarduerak EAEn edo bertatik kanpo: ikastaro motzak, kongresuak...

#### *PAT-COPek (orain Berritzeguneak) eskaini eta emandako prestakuntza.*

PATek prestakuntza ikastaro eta mintegiak antolatu dituzte euren eraginpeko zonaldeetako irakasleentzat.

Jarduerok ikastetxe batzuetako irakasleak biltzen dituzte berehalako lan interes erkideen: 5.000 irakasle, ikasturte bakoitzeko. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ia-ia irakasleen %20k hartu du parte berorietan, eta portzentaje hori are handiagoa da sare publikoan.

#### *Lan taldeak.*

Lan Taldeek bi helburu dituzte: batetik, irakasleak prestatzea, eta, bestetik, ikastetxeak berritzeko datu, material eta ondorio erabilgarriak eskaintzea. Azken urteotan ondoko gaiak jorratu dira: DBH eta DBHOko curriculumaren ikasgaien zenbait alderdi; baloreen hezkuntza curriculumean sartzea; ikaste prozesuen ebaluazioa...

### **HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

#### *Hezitzaileen eta gizartearen igurikapenei erantzuteko.*

1) Hezitzaileek ohitura hartu behar dute gizarteak zuzendutako eskariak entzuteko eta bereizteko. Sistema demokratikoak eskariok bideratzeko zenbait bide ditu. Landu, argi eta esplizituenak legearen bidez azaltzen dira. Modu horretara, gizartearen adostasun maila eta derrigortasuna jakin daitezke. Gizartearen beste eskari batzuk, inplizituak, sortzen ari direnak, legeak ezarritako ordezkari organoen bidez azaltzen dira. Hain formalak ez diren eskariok zailago ulertu eta interpretatzen dira. Eskola kontseiluak tresna egokia izan daitezke eskariok iragazi, sailkatu eta zehazteko.

2) Gizarteak ezin du eskolaren gainean zama guztia ipini, eta gero kasurik egin ez. Aldaketei eta eskari berriei dagokienez, eskolaren oinarritzko erantzukizuna testuinguru berri horretara egokitutako eskola kultura definitzea eta kultura hori irakasteko behar den lanbide esku-hartzea zehaztea da. Bestelako eragile batzuek euren erantzukizuna hartu beharko dute beren gain.

3) Gizarteak hezkuntza sistemari egindako eskarien inguruko formulazioak kontuan izanda, dirudienez, adostasuna dago eskola sistemari eskatutako bi helbururen inguruan: ikasleen nortasuna osorik heztea gizarte demokratikoan bizitzeko eta laneratzeko.

Hortaz, ikuspuntu batetik zein bestetik, besteak beste, ondokoak garatzea beharrezkoa da, autonomia, gizarteratzea, partaidetza kritikoa eta oinarrizko kultur elementuak ematea. Horretarako, hezkuntza sistema ondorengo printzipioetan oinarritzen da: gizarteratze, partaidetza eta elkarbizitza demokratikoan, desberdintasunak errespetatzean, bereizketari uko egitea eta desberdintasunak (gizartearen alorrekoak, sexuaren eremukoak edo kulturalak) konpentsatzean.

4) Ezagutza bidezko garapenean zentratutako eskolatik pertsonaren garapen osoari arreta eskaintzen dion eskolara igaro behar da. Jakin-minaren, sormenaren, ohitura instrumentalen hezkuntzari jarrera eta balore etikoak gehitu behar zaizkio. Hori guztia curriculum esplizituaren zatia izan beharko da, beraz, egintza sistematiko eta progresiboaren xede izan.

5) Ikaslearen jardura orientazioan zentratu behar dela esaten ari da. Irakasteaz gainera, ikasleak orientatu behar ditu, baliabideak eman eta erabakiak hartzen lagundu, ikasketa ibilbidea kontuan izanda eta lanbide geroari begira.

6) Gizartean bizi den balore krisialdia, gizarte eta famili aldaketak, bizitzeko estilo berriak, eta gero eta ikasle gehiagok bizi duten egiturarik eza eta bereizketa direla eta, eskolan gizarteratzea, ikasketei eustea eta eskola jardura gero eta zailagoa da. Hortaz, irakaslearen helburu zehatza ondokoa izango da: ikasleen interesekin eta igurikapenekin harremanetan jartzea, gazteen azpikulturak ezagutzea, eta gatazkei aurre egin eta jarrera eraikitzaile eta positiboetara bideratzea.

7) Eskolak jaramon egin behar dio aniztasunari eta interkulturalitatea lantzeari, eta aurre egin behar die hezkuntza beharizan bereziak dituzten ikasleen eta etorkinen seme-alaben beharizanei.

8) Eskolak prestatu behar ditu gizon-emakumeak lanbidean aritu ahal izateko. Helburu hori oso garrantzitsua da Lanbide Heziketan, eta horri esker, gero eta sona handiagoa ari da hartzen gizartean. Ideia horrek hezkuntza sistema osoa blaitu behar du, zertarako eta ikasleek gizarte aldakorrean bizitzen ikasteko, "ikasten ikasteko"; ikasketek gaitasunaren benetako garapena ekarri behar dute; hizkuntzak erabiltzeko batez ere ikasi egin behar dira; teknologien inguruko jakintzak baloratzen dira une zehatz batzuetan aplika badaitezke.

9) Atzerriko hizkuntzak ikastea hobetzea ezinbestekoa da Europako eremuan sartzeko eta etengabeko globalizazioa ekonomi, gizarte eta kultur jazokizunari aurre egiteko.



10) Gizarteak irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eskatzen duenez, hezkuntza sistema tresna batzuez baliatu behar da hobekuntza orientatu eta errazteko, Lanbide Heziketan egiten ari den moduan. Tresna horien artean, ebaluazioa azpimarratu behar dugu, ikastetxeek egindakoa eta Hezkuntza Administrazioak egindakoa, alegia.

*Tutoretza lana sustatzeko.*

11) Tutoretza lanari denbora gehiago eman behar zaio irakasleen ordutegian. Izan ere, irakasle bakoitzak hiru ordu gehiago behar du astean eskolaz kanpoko ordutegian, banako tutoretzarentzat, gelako hezkuntza eta laguntza taldea koordinatzeko, mailako edo zikloko tutoreen eta orientatzaileen arteko koordinaziorako; eta gelako tutoretza bera garatzeko (ikastordua).

12) Talde-tutoretzari ordubete gutxienez eskaini behar zaio astean. Erljio gairako emandako denboraz hausnartu beharko da ikastetxe publikoetan.

13) Taldeko tutorearen lana oso zaila denez, ordainsari handiagoa ematea ezinbestekoa izango litzateke.

14) Talde bakoitzean eskolak ematen dituzten irakasleen kopurua gutxitzeak bilerak egitea eta lan-talde gisa aritzea erraztuko luke.

15) Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek tutoreak izendatzeko irizpideak bete behar dituzte, eta batez ere ziklo osoan irautearena. Ordutegiak diseinatzean, helburu horiei begiratuta irakasleen orduak koordinatu beharko dira.

16) Garrantzitsua da oso hezkuntza orientazio eta laguntzako planak ikastetxe guztietan onestea eta gobernu organoetako (Klaustroa edo Eskola Kontseilua) partaidetza ahalik eta handien izatea, baita urteko (IUP/PAC) eta urte anitzeko (IIP/PCC) plangintzetan akordio horiei lekua ematea ere.

17) Komenigarria da esparru egokiak gauzatzea tutoretza eginkizunak (ikasleak, gurasoak, irakasleak edo langile laguntzaileak ukitzen dituztenak) betetzeko.

18) Tutoretzaren iraunkortasunari eusteko, garrantzitsua da ikastetxeetako langile zerrendak zabaltzea.

19) Komenigarria da Administrazioak tutoretza eginkizuna arautzea, baita ikastetxe pribatuetan ere, orientatzaile lanpostua kontuan izanda.

20) Orientazio saila Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratu behar da, salbuespenik gabe, tutoreak eta bestelako arduradunek parte hartu ahal izateko.

21) Hezkuntzarako laguntza zentro guztietan orientazio teknikari bat egotea oso lagungarria da.

22) Administrazioak plan ereduak –tutoretza, orientazioa eta abar- eskaini behar ditu, ikastetxe bakoitzak bere berezko plana landu dezan.

23) Ikastetxeek gurasoak hartzeko ordutegia malgutu behar dute, baita eurak prestatzeko programak prestatu ere.

*Irakasleen hasierako prestakuntzarako.*

24) Irakasle eskolek prestakuntza eskaintza zabaldu behar dute gizartearen eskariei eta profesionalen perfil berriari egokitzeko. Ikasketa planak gaurkotu behar dute, ikastetxeek eskatutakoari (tutoretza, zehar lerroak, multikulturalitatea, teknologia berriak, informazioaren gizartea eta abar) eta ikastetxeak antolatzeko beharrari (administrazioa, zuzendaritza, kudeaketa eta barneko koordinazioa) hobeto erantzun ahal izateko. Era berean, irakasleak prestatzeko titulazioa egokitzen jarraitu behar dute.

25) Premiazkoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntzaren beharrianak zehaztea, baita beharrian horiei ondoen egokitzen zaizkien unibertsitate titulazio eta prestakuntza modalitateak ezartzea ere.

26) Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasle hasi berrien praktika-aldia eta irakasle on irakasle gidarien hautapena eta prestakuntza zaindu behar dira, lehenengo urtean behintzat.

*Irakasleen etengabeko prestakuntzarako.*

27) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argi eta garbi ezarri behar ditu helburuak eta ildoak, irakasleen gaitasunak hezkuntza sistema berriaren eta gizarte berriaren eskakizunei etengabe egokitzeko.

28) Irakasleek gero eta gustukoago dute berdinen arteko prestakuntza, bai ikastetxean bertan eta bai irakasle taldean. Hortaz, modalitate hori bultzatu eta orokortu beharko da, bai eta ikastetxe eta irakasleen praktika onak aprobetxatu ere. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agiriak, tresnak eta aholkularitza ahalbidetu behar ditu, Berritzeguneen (laguntza zentroak), mintegien, lan taldeen eta bestelako bideen bitartez.

29) Laguntza zentroak, arestian berriak eta berriro egituratuak, aprobetxatu beharko dira orain arte egindako praktikak aztertzeko eta baliozkoak eta baliorik gabekoak ezagutzeko. Ebaluazio horren arabera, kasuan kasuko neurriak zehaztuko dira.

30) Ezinbestekoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako “prestakuntza ordua” erabiltzeko forma aztertzea, hasierako helburua bete dadin.

31) Lanbidean, mailaz igotzeko, irakaslearen aukerak zabaltzeko bideak ezarri behar dira. Horretarako, irakaskuntza-lanean bertan, ahalmen berriak eskaini behar dira (igoera horizontala) edo profesional esperientziadunak eskatzen dituzten lanpostuetarako sarrera erraztu behar da (igoera bertikala).

Bilbon, 2002ko otsailaren 2a.